



“Euskal Herrian rokodromo on bat falta da”

Irati Anda | Gora begira ez dago mugarik

Superman-en gisako bizitza bikoitza du, Gasteiz eta Eibarren (Gipuzkoa) artean, rokodromoa eta harkaitzaren artean. Entrenatzen ikusi dugunoi hegan doala iruditu zaigu, baina ezin liteke Superman izan; bertigo pixka bat omen dauka.

SUSTRAI COLINA
Argazia: Dani Blanco

Natura garaituko duzuela pentsatzea ere...

Ibaia beti doa bere bidetik, eta bere bidetik atera nahi duzunean, berdin da zenbat urtera baina berriz bueltatuko da. Badago natura gainditzeko nahi hori, baina natura indartsuagoa dela jakinda.

Horregatik izorratzen duzue?

Ezetz uste dut, baina egia da rokodromoetan hezi eta hazi diren eskalatzaileriek ez daukatela guk daukagun kontzientzia hori. Paper bat bota eta norbaitek jasoko duela pentsatzen dute.

Eliteko kirolariak diziplinatuak zirela uste nuen...

Gu gara gure entrenamendua prestatu eta aurrera eramaten dugunak. Badakigu zer egiten dugun, baina guk egin behar dugu. Hori da niretzat gogorena, inork ez nau hor egotera behartzen.

Eskerrak buru-gogorra zaren!

Bai, gainera eskaladan gehiagotan galtzen da irabazi baino. Bide bat eskalatzeko proiektua daukazunean, bost edo sei aldiz eroriko zara eta behin kateatuko duzu.

Medioek ez dizutela erortzeagatik deitzen, alegia.

Ez nago dei horren zain. Niretzako eta nire ingurukoentzako irabazten dut. Bestela ez nuke hain gogor lan egingo, ezingo nuke hainbeste motibazio bideratu.

Txapelketak ez al daude ikuskizunera bideratuta?

Txapelketa txapelketa da bai eskaladan, bai tenisean, bai edonon, eta eskalatzailerak jakin egin behar du ikuskizun hori ematen. Saltzeko ikuskizuna behar du, ikuslegoa egon dadin, dirua mugitu dadin...

Baina eskalada ez al zen lagunak, natura...

Txapelketan egozentrismo handia dago. Ez dakit zenbat pertsonen aurrera atera behar duzu daukazun onena ematera. Umila eta kikiltzen den horietakoa bazara beldurra ematen du.

Niri babesle bila ibiltzeak emango lidake beldurra!

Aurpegi latza behar da norbaitengana joan eta publizitate truke zerbait eskatzeko. Norengana joan, zer eskatu, zenbat... Mundu bat da. Gu saiatzen gara gurea egiten, baina oso zaila da.

Espainiako selekzioan aritzea bezain zaila?

Hori da daukagun errealitatea, eta errealitatea bizi egin behar da, ezin da ukatu. Nik badakit zer sentitzen dudan, zer pentsatzen dudan, eta horrek balio dit niri.

Kirol ibilbidearen osteko errealitatea ere bizi beharko da...

Nire ilusioa rokodromo on batean lan egitea izango litzateke. Tamalez, Euskal Herrian rokodromo on bat falta da. ■